

Mendata

Aurkibidea

Udalerria: Mendata

Sarrera



Oiz mendiaren iparraldeko mendi-inguruetan dago kokatuta, Busturialdea eskualdean. Erdigunea Elexalde auzoan dago eta Olabe, Albiz eta Marmiz auzoek osatzen dute herria. Muxika, Ajangiz, Arratzu eta Munitibar-Gerrikaitz ditu herri mugakide nagusiak. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da mendatarren hizkera.

- **Biztanleak:** 360
- **Euskaldunak:** %83,5

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **19**
- Pasarteak: **188**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **188**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Mendatako ahotsak
- Muxikako ahotsak

Hizlariak

Rufina Abaitua Bilbao (1928)

Mendatarekin muga egiten duen Munitibarreko Berreño auzoko Bekoetxebarrin jaio eta hazitakoa da. Aita ere bertakoa zuen eta ama Munitibarrekoa. Mendatagaz eta Arratzugaz lotura beti izan dute, hurbiltasuna dela-eta. Inguruako hainbat etxetatik pasatu ostean, Mendatako Olabe auzoko Iberre baserrira joan zen gerora bizitzen eta bertan osatu zuen familia. Lau neba-arrebatatik txikiena izan zen. Ama 6 urte zituela hil zitzaion eta ahizpa 11 urte zituela; ondorioz, eskola utzi behar izan zuen. Gerra aurreko, gerra garaiko zein osteko bizimodua ondo gogoan ditu baserriagaz lotura estua izan duen emakume honek. Sasoi hartako bizimoduaren berri eman zigun.

Jose Maria Aranguena Aranbarri (1933)

Mendatako Solaburukoa.

Begoña Beaskoetxea Aranbarri (1932)

1932. urtean jaio zen Mendatako Solarren baserrian. Aita bere jaiotetxe berekoa zuen, ama, oster, Markinaldekoa. Lau neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. 24 urte gaz Olabe auzoko Torrera ezkondu zen (herriz Mendata, baina Elizaz Arratzun den etxea) eta ordudanik bertan bizi izan da. Umetan Ajangizko eskolara joan zen, etxetik Mendatakoa baino hurrago zuten-eta. 15 urte gaz Bilbora joan zen umezain, baina laster bueltatu zen etxera. Baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa denez, bertakoa bizimodua ederto ezagutzen du.

Anastasio Beaskoetxea Egiarte (1925-2022)



1925. urtean sortu zen Munitibarko Aldaolan, baina lau urte zituela ama hil eta Mendatako Errekaldera joan ziren izekoarenera. Aita zuen Errekaldekoa eta ama, berriz, Ibarruriko Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrikoa. Zazpi neba-arrebatan seigarrena izan zen. Amaren heriotzaren ostean, oso bizimodu gogorra bizitzea egokitu zitzairen, gehienak neskame edo morroi irten behar izan zutelako eta ez zutelako eskolara joateko aukerarik izan. Eskolara barik basoko beharretara joan beharra izan zuen eta 11 urte gaz morroi joan zen. 15 urte zituela, Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoan arrebaren etxean morroi zegoela, aita hil zieten. Soldadutzara joan eta ez zen gehiago Mendatara bueltatu. Izan ere, Brasilerako bidea hartu zuen eta bertan ikasi zuen idazten eta irakurtzen, besteak beste. Durangaldeko hainbat herritan eta AEBko Idahon eta Coloradon ere ibili zen beharrean, bizimodu gogor hari aurre egin ahal izateko. Etxanoko Urritxera ezkondu zen [Teodora Gerediagaz](#) eta bertan osatu zuen familia.

Damiana Belaustegi Jaio (1924-2016)



1924ko urtarrilaren 22an jaio zen Gerrikaizko Egurrene baserrian; baina, umea zela Mendatako Gogortzara joan ziren bizitzera eta bertan bizi izan zen 29 urtera arte, Ibarruriko (gaur egun Muxika) Unda auzoko Erregene baserrira ezkondu arte. Bere aita Gerrikaizko Egurrenekoa zen eta ama Munitibarko Aldolakoa. 6 neba-arrebatatik seigarrena da bera. Umetan Berreñoko eskolara joan zen gerra denborara arte. Gerra ostean umezain ibili zen Urkitzen eta gero 3-4 urtez Etxebarrin, josten ikasi zuen bertan. 18-20 urte ingururekin etxera bueltatu eta etxerik etxe aritu zen jostun lanetan. Ibarruriko Angel Mugiragaz ezkondu ostean baserriko beharretan aritu izan zen. Hiru seme-alaba izan zituzten. Elkarriketa honetan emakumeen arteko hika darabil Damianak.



Maria Angeles Gorriño Aranburu (1944)

Lamikiz auzoko Bastarretxe baserrian jaio zen 1944an. Aita Mendatakoa zuen eta ama Ibarrurikoa. 5 neba-arreba izan ziren, bera gazteena. Mendatako eskolan ikasi zuen.

Josepa Intxausti Mendibe (1932-2013)



1932ko martxoaren 19an jaio zen Mendatako Albiz auzoko Trebolerrota baserrian (Geldierrota ere deitua). Aita Lumokoa eta Ama Markinako Etxebarri baserrikoak zituen. 4 neba-arrebatatik bigarrena da bera. Gerra ostean hasi zen Albizeko eskolan, 14 urtera arte. 14 urterekin Bilboko "Calle de los Heros"eko etxe batera joan zen neskame lanetan 16 urtera arte. Etxera bueltatu eta 23 urterekin Lekeitiora joan zen bertako Beitia hotelera beharrera hiru hilabetez. 24 urterekin, Ibarruriko (gaur egun Muxika) Berroja auzoko Albizena baserriko Benancio Irazabalekin ezkondu eta bertan bizi izan zen ordudanik. Alaba baten ama da.

Bittor Irazabal Uribe (1926)

Mendatako Lexarragakoa. Gerrikaizko [Pilar Amesti](#)rekin ezkondua. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Jone Irazabal Uribe (1924)



Mendatako Lexarragan jaioa; Ziortza-Bolibarko Garindua baserrian bizi. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

Bittor Larruzea Aranbarri (1928-2024)



1928. urtean sortu zen Solaburu baserrian, bere amaren jaiotetxean. Handik aitaren jaiotetxera joan ziren bizitzera, berak familia osatu zuen baserrira: Eleizaldeko Sargastera. Zazpi neba-arrebako familian bigarrena izan zenez, umetatik behar asko egitea tokatu zitzaion. Zazpi urte gaz eskolan hasi eta Espainiako Gerra Zibila zela-eta, utzi egin behar izan zuen. Aita hiru urtez izan zuten Larrinagako kartzelan, beste hainbat mendatar bezala kartzela-zigorra betez. Garai hartan, bera egin zen etxeko kargu, auzokoei asko zor diela ez du sekula ahaztu, laguntza asko izan baitzuten. 12 urterekin berriro ekin zien ikasketei eta 20 urtera arte aritu zen eskola partikularrera zein gau-eskoletara joanez. 33 urte gaz, aita izan ostean, emaztea eta alaba txikia etxean utzita, Australiako Hegoaldeko Gales Berrira joan zen lanera, etorkizun hobe baten bila. Handik bueltan, Gernika-Lumoko Malta lantegian aritu zen erretiroa hartu zuen arte. Elkarrizketa honetan, garai bateko Mendatari buruzko hainbat kontu kontatu zizkigun beraien etxeko gozotasunean.

Zipri Urkiza Artetxebarria (1945)

Zipri 1945ean jaio zen Albiz auzoko Gorontze baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Munitibarreko Totorika auzoko Larrina baserrikoa. Bost neba-arreben artean mutil bakarra izan zen. 12 urtera arte joan zen Albizko eskolara partikular joan aurretik. 16 urte zituela, Mendatara ura ekartzeko ubideetan hasi zen lanean, dena eskuz egiten zen garaian. Soldadutza ostean Ameriketara joan zen artzain, Pete Zenarruza ugazaba zuela. Bost urtez Ameriketan egin eta Eibarrera joan zen lanera. Bizitokia ere bertan ezarri zuten, nahiz eta ia egunero Albizen egon. Umetako eta gaztetako ibilerak, monagilo lanak, Ameriketako bizimodua, baserriko beharrak... izan genituen berbagai, besteak beste.

Lino Zabala Gorriño (1947)

Mendatako Landa baserrian jaioa, Lamikiz auzoan. Guraso biak auzokoak ziren eta aitaren baserrira ezkondu ziren. Baserritik ateratzen zuten bizimodua. 14 urterekin anaia eta biak Gernikara joan ziren bizitzera; etxea zuten bertan; anaia lanean hasi zen fabrika batean eta Linok Gernikan egin zituen ikasketak. Itsasoan pasatu zuen urtebete, Pasaiaiko bakailao-ontzi batean, eta ondoren soldadu joan zen (ia bi urte). Merkatal-ontzietan lan egiteko asmoa zeukan, baina AEBetara joatea erabaki zuen. 1969an Boisera joan zen, bost urteko kontratuarekin. Arrantxo batean egin zuen lana: artzain baino gehiago kotxearekin animaliak, janaria eta karga eramaten ibili zen (gutxik zuten gidabaimena). Battle Mointainen ere egin zuen lana, urre-meatzeetan, bi urtez. Mekaniko ikasketak egin zituen, Boisen, eta 30 urtean horretan jardun du, tailer batean. Begoña Rementeria boisetar euskaldunarekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten (biek dakite euskaraz). Pilotan eta musean jokatzeko du, eta Euskal Etxe askotan egon da txapelketetan.



Pilar Zubizarreta Arbe (1944)

Marmiz auzoko Kurtzia baserrian jaio zen 1944. urtean. Aita ere bertakoa zuen, ama auzoko Bengoetxe (Bengetze) baserrikoa. Bi ahizpa baino ez ziren izan. Ahizpak etxetik kanpo egin zuenez behar, etxeko lan guztiak berak hartu zituen. Beti ibili da baserriko lanetan, gogoko beharrean. Elkarrizketa egin genioenean ere, oraindik plazarik plaza ibiltzen zen. Umetan Ajangizko eskolara joan zen, 12 urtegaraz utzi eragin zioten arte. Baserriko bizimodua eta bertako beharrak oso ondo ezagutzen dituen, batez ere horri buruz aritu ginen beste gai askogaz batera.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Gernika bonbardatu zuten eguna

- **Hizlaria(k)**: Beaskoetxea Egiarte, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MDT-004/007
- **Iraupena**: 0:06:36. **Hasi**: 00:11:28. **Bukatu**: 00:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gernika bonbardatu zuten goizean izeko neskazaharrarekin joan zen Gernikara arrautzak saltzera. Milizianoak harantz honantz ikusten zituzten, eta jendea artega edo. Giro horretan, izekok etxera itzultzea pentsatu zuen. Erreteria pasata, hegazkinak hasi ziren gainetik pasatzen, bonbak bota eta metrailatzen. Izekoa babestu ere ez zen egiten. Hegazkinak Ajangizetik Foru aldera sartzen ziren eta Gernikara. Marmizen gora hasi zirenean etxerantz, hirunaka etortzen hasi ziren hegazkinak; milizianoak aurkitzen zituzten bidean, atzeraka, sakabanatuta, erretiratzen; Kalamuako frontea apurtu zutela uste du. Iluntzean, Gernika sutan ikusten zen, eta paper erreak eta hautsak ekartzen zizkien haizeak. Bonba txikiak aurkitzen zituzten basoetan.

Transkripzioa

–Gernikeko bonbardiue ez dotsut, ez dotsut espliketu; ondiño ixeko zaharragaz egon giñen, ez nintzen... baia orduntxe urtien jua nintzen Hambra kridxeu. Ta, Gernikeko bonbardeoa, ba, egundo lagunik ez eban bixi ixeten, biher ixeten ixeko solteriek, egundo. Ta orduen ni eroan nendun, ni apartau nendun; Gernikera arrotzak saltzen joaten zan, ta sagarrak eukitten zittunin sagarrakin be bai, astotxuaz; ta orduen joan zan arrotzakin bakarrik. Ze hille zan? E... aprile, aprile. Datorren hille zan Gernikeko bonbardeuena. Ta Gerniken ibili gintzezan, ibili gintzezan, ba, arrotzak-eta saltzen, puestuen, ta ni ondoan, ta ikusten nabegan, ikusten genduzen milizianuek, haulan e, mosketo bat lepoan, ta batzuk banan, beste batzuk biñan, ta hainbeste milizianu ibili zin han. Ta jentie, bastante deskonfiau, deskonfiau ikusten gendun. Ia, ez edozein astelehenetan moduen... Nik ez dakit, e, zeaittik, jentiek haxe inpresinua, edo zeozer euki eban jentiek eta milizianuek batetik bestera, ta batetik bestera. Ta, akordau jakon: “Bueno, etzera joan biher dou”. Ixeko zaharrari akordau jakon “etzera joan biher dou /biu/”; ze han jentie, ia e, raro ikusten eban, ta nik be bai. Gaztie ixen nintzen, baia jentie ikusten nabegatik bestera ixilik, ixilik eta zerien ikusten nabegatik. Ta, hor, e, hamar bat miñutu eurrerau, abioiek etorri baiño, ba akordau jakon “Etzera joan biher dou; goazen etzera”. Ta ein ebazen /eibazen/ konpran batzuk be, azukerie ta oridxoa, edo zozer, konpra batzuk ein eban, eta arrotzak kendu ebazen, saldu ebazen, ta “etzera joan biher dou /biu/”, ta... Haur, hasi giñen zerien gora, Erreteridxen gora, ta goratxoau, Erreteridxe baiño goratxoau, abioiek, mmm... Irrintza bakotxik ataraten eben, irrintza bakotxik! Italianuek, dunkerrak; e... baia ataraten eben irrintza bakotxik, ta jentie irrintzaka, ze bonbak botaten ebezan, ta ametrailau. Ta, bueno, hango irrintzi, ta Foru aldera joaten zien, ta hango, hango ametrailadoraz, bueno... Dana,

arbolak be birrinddu eitten ebezan. Ta [...] ixekoa joaten zan, ba, astotxuaz, astotxuaz, zerik be, ez kantarillara arrimau, ez ... ta ni sartzen nintzen kantarillara, etzun eitten nintzen, ta ha bapez sarriten; ta dana, dana metraillie, ametrailladoragaz, dana, irrintzie balak ataraten eben, irrintzie, ta ha zuzen, bapez erretireu. Ta jentie ikusten eban han baserridxetan ta, ze, kazakoak asko ibili zien, bastante; ta arin eitten eben. Buf! Zerien, Ajangizen dauzela, baia segundo bidxen-edo sartzen zien Foru aldera ta Gernike, Gernike, bonba... zertzen; ta botaten eben lantzien bonba bat, botaten eben. Horrek bonba txikidxe, ta, ametrailadorak paseu, buf!. Terrible, irrintzi terrible! Bakizu, ordun sasoi, estraiñau horrek gauzak, egundo ikusi barik eta. Ta, gero, hasi zien, gora joan giñenin, Marmiz, bakizu Marmiz? Bai, zuk dana ezautzen dozu; bai. -Neure ingurue bai.

-Bai, bai, bai, bai, bai. Ta Marmizen gora hasi giñenien, ba, etor zien abioiek hirunan-hirunan, hirunan, hirunan, hirunan. Zemat ez naz akordetan, baia hirunan hirunan hirunan, grupoak etorri zien. Ta hasi zien bonbardietan. Ta ordukorik gehidxau ez dakit. Joan gintzezan etzera; aitte topau gendun, aitte topau gendun arto ereitten, behidxeekin soloan, ta lantzen behin milizianu bet euren fusillek lepoan ta, erretiradan; Kalamue, pentseten dot apurtu ebela zera, frentiek, ... o sea ke Francon alderdiko zerak, ta eon zan, ba, milizianuek biñan, hiru be bai, banan be bai; ta ikusten zien, ba, lekun, lekun, lekun ikusten zien. Desbandada, desbandada. Ta grupo haundidxe barik, gitxi, gitxi ikusten zien, banan-banan edo biñan edo hirunan ikusten zien Gernikerantza, ikusten zien. Ta Gernikek iluntzidxe be, ondiño, errekan, beheko errekan bizi giñen, baia dana ilumineu eitten eban, zera. Ta etorten zan, ba, papelan zerak, heutzek, ta zerak esaten dana, su bete gar bat eitten da basoan edo, eta harek botaten dittun zerak, keiek eta heutzek etorten zien ondiño Mendata hara azpirarte; Errekalde hantxe egon zan; ta etorten zien, ta bonban e... bonbak botaten zittuen, horrek bonba txikidxe botaten zittuen, holan, zeindda guardasol moduko zerakin botaten ebezan, parakaide txikidxeekin botaten ebezan ta harek be haixiek ekarritte topaten genduzen basoan ta; ta ze asko bota eben ta bonba txikidxe baserridxetan ta; ta etorten zien. Ta gehidxau, ba, ordukorik ez dakit gehidxau.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Teresa Barrena maistrarekin Mendatako eskolan (MDT-001/002)

Zazpi urterekin Mendatako eskolara hasi zen. Teresa Barrena zen maistra. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Goizean maistrak eta maisuak Espainiako bandera ateratzen zuten eta beraiek `Cara al sol´ edo `Viva España´ kantatu behar. Dotrina bakarrik ikasten zuten. Gaztelaniaz tutik ez zekitenez, lehenengo egunean asko ikasi zutela iruditzen zitzairen. Eskolara oinez joaten ziren, goizez eta arratsaldez.

2. Eskolatik etxera joandakoan, baserriko beharrak (MDT-001/003)

Eskolatik etxera joandakoan, beharrak egin behar: belarrak ekarri, behiak zaindu... Bera umea zenean, bazuten argia etxean, baina argi gutxi egiten zuen bonbillatxoak bakarrik. Bestela, kandelak, karburoa... Gerora butanoa. Olgatzeko denbora gutxi izaten zuten.

3. Erregeek ekarritako panpinak (MDT-001/004)

Erregeek kartoizko panpinak ekartzen zizkieten Gabonetan. Nolakoak izaten ziren. Bestela, harriekin jolastu behar. Irudimena erabiltzen zuten.

4. Jatekoa prestatzen goiz ikasi (MDT-001/007)

Eskola amaitutakoan, etxean geratu behar izan zen beharrean, anaiak kanpora joan ziren eta. Jatekoa prestatzen goiz ikasi omen zuen, amari gizonezkoekin batera kanpoko lanetan ibiltzea gustatzen zitzaion eta. Gosaltzeko esne-zopak. Bazkaltzeko indabak txorizo edo urdai zatitxoarekin. Ez zegoen hozkailurik eta jatekoa gatzetan gordetzen zen. "Freskerie".

5. Meriendatzeko txokolatea eta ogia (MDT-001/008)

Meriendatzeko gehienetan txokolatea eta ogia jaten zituen. Bestela esne-gaina (tela edo kipurra) ogi gainean ipinita, azukre pixka batekin. Amak Totorikaguenarenean egiten zituen mandatuak eta han gozoki eskukadatxo bat ematen zioten. Haretxen zain egoten zen. Txerria hiltzen zenean, odolosteak auzokoei banatzen zitzaizkien. Sari moduan txokolatea, intxaurrak edo hurrak ematen zizkieten, eta pozik!

6. Ogia egiten zen bitartean, arropak garbitu (MDT-001/009)

Larunbatetan ogia egiten zuten etxean. Aldamenean amama eta osaba-izebak bizi ziren. Egurra ekarri eta labea prestatzen zuten, gero bi etxeetakoek batera ogia egiteko. Orea nola prestatzen zen. Labea zaintzen zuten bitartean, arropak garbitzen zituzten.

7. Ura errekatik ekarri behar (MDT-001/010)

Arropei xaboia egiteko, mahai bat jartzen zuten atarian. Gero errekatxora hura astintzera. Etxean ez zuten urik eta baldeekin ekartzen zuten. Udan, sikate sasoian, gurdian barrika handi bat hartu eta beherago zegoen Osineta errekarara joaten ziren hura betetzera.

8. Aitak astoaren aparejuak egiten zituen (MDT-001/013)

Etxean zerratokia izan zuten. Aitari gustatu egiten zitzaizkion horrelako gauzak. Uztarriak ere egiten zituen. Eguraldi txarrarekin ere beti topatzen zuen zeregina. Astoaren "trakuluak" (aparejuak) ere egiten zituen; gainera tolestu egiten ziren. Belarra ekartzeko izaten zen. Gernikara joateko, otzarak.

9. Sagarrak azokara (MDT-001/014)

Sagar asko zuten eta astoarekin saltzera joaten zen ama azokara: larunbatetan Durangora, domeketan Zornotzara eta astelehenetan Gernikara. Gerora Bermeoko eroetxetik etortzen zitzaizkien bila. "Menpe"ren kamioian eramaten zituzten. Beraiek ere hantxe joaten ziren, ganaduaren antzera.

10. Astoak jakiten zuen amamaren edo izebaren etxerako bidea (MDT-001/016)

Baserrian lan guztiak ganaduarekin egiten ziren. Ferratzera Marmizera edo Muxikara eramaten zituzten. Umetatik behia hartu eta ordubeteko bidean Muxikaraino. Maumera ere joan izan zen amamarengana, bi orduko bidean. Eta baita izebarengana ere. Astoak eramaten zuen, hark bidea jakiten zuen eta.

11. Baserriko ogia okindegikoagatik trukatu (MDT-001/017)

Ogi faltarik ez du ezagutu, etxean beti izaten zituztelako artoa eta garia. Gauetan taloa eta esnea. Eguraldi txarra zenean, ogitartekoarekin joaten ziren eskolara eta auzoko batzuei ogia aldatzen zieten, beraiek okindegiko ogia nahiago zutelako eta haiek baserrikoa nahiago.

12. Olorik ezean, txerriaren koipea (MDT-001/018)

Baserrian ez zuen goserik ezagutu eta gurasoei ere horixe entzun izan zien beti. Beti egoten zen zerbait jateko. Olio falta egon zen. Txerriaren koipea erabiltzen zuten jatekoa frijitzeko. Ogi faltarik ez du ezagutu. Olio kontrabandoa. Mendatako emakume batek egiten zuen tranpa.

13. 1943an Mendatan jausi zen hegazkin amerikarra (MDT-001/019)

1943an, bera jaio baino pixka bat lehenago, hegazkina jausi zen Mendatan. Ama eta neba zaharragoa arbitan zebiltzan. Anaiak hegazkinetik zerbait erori zela ikusi zuen; pilotua zen paraxutarekin. Arte handi batean geratu zen katigatuta. Hegazkina, berriz, ermita inguruan jausi zen. Mira eginda egon ziren denak, umerik ez zuelako parean harrapatu. Ameriketako egondako herritar batzuek ahalegindu ziren pilotuarekin komunikatzen. Antza denez, amerikarra zen, Mundu Gerran ibilia, eta ez zekien zer estatutan jausi zen ere.

14. Etxera etortzen ziren "bisitak": guardia zibilak, ijitoak, sardina-saltzaileak... (MDT-001/023)

Guardia zibilak joaten zitzaizkien etxera. Ibilbide bat egin behar izaten zuten eta euren aitari sinatzeko esaten zioten, ziurtagiria izan zezaten. Ijitoak ere asko joaten zitzaizkien, gauzak saltzen. Baita Bermeoko sardina-saltzaileak ere. Mendatako jaietan Basauriko gozoki-saltzaileak egoten ziren, Maria eta Santa.

15. Auzoko letaniak eta Mendatako San Migelak (MDT-001/025)

Auzoan letaniak egiten zituzten. Astelehenetan etortzen zen abadea. Herriak gailetak, anisa eta koñaka ematen zituen elizpean eta jende asko batzen zen. Bestelako jairik ez zen izaten auzoan. Mendatan, berriz, San Migelak ospatzen ziren. Meza ostean aurrekua egoten zen eta arratsaldean erromeria. Hamarretarako etxera. Jai egunetarako arropa bat izaten zuten. Negu osoa jaka berarekin. Ez ziren asko garbitzen eta sudur-zapirik ez zutenez, besoan zolda eginda. Oinetan gomazko abarkak, amak egindako txapinekin.

16. Umetako entretenimendua: jaunartzeak eta hiletak antzeztea (MDT-001/028)

Domekan laurak aldean arrosariora joan behar izaten ziren. Horren aitzakian, iluntzera bitartean jolasteko denbora izaten zuten. Zer entretenimendu izaten zuten. Lagun batek izeba jostunak zituen eta azpikogona dotoreak edukitzen zituen. Ezkutura joan, hura azpikogona hutsean jarri eta "jaunartzeak egiten" ibiltzen ziren. Koroak egiten zituzten lorekin. Hiletak ere egiten zituzten, txirritxirriei, adibidez. Elizako hilarrietako trapuak erabiltzen zituzten.

17. Umetako jolasak: "primera-segundaka" eta "fidoka" (MDT-001/029)

Umetako jolasak. Mendatako eskola aurrean lauzeekin eginda zeuden eskaileretan "Primera-segunda"ka nola jolasten zuten. "Fidoka" jolasa elizpean egiten zuten; nola jolasten zen.

18. Tela erosi eta arropak "neurrira" (MDT-001/032)

Gorpuzti egunean Gernikara joan ziren prozesioa ikustera lagun bat eta biak. Bidean ekaitzak harrapatu zituen. Arropak neurrira egiten ziren, tela erositak. Denbora luzez iraun zezaten, barrenean eta gerrian hartu egiten ziren, gero luzatzen joateko.

19. Nebaren bizikleta; galleten eta gozokien inbidiatan (MDT-001/034)

Nebaren bizikletarekin ibiltzen ikasi zuen, baina gero errepidean jarri eta ezin moldatu. Euren sasoian ez zen hain ohikoa bizikleta izatea. Eskolaren ondoan bizi zen lagun bati amak galletak ematen zizkion eta hari begira-begira egoten ziren, inbidiatan. Gozokiak domeketan jaten zituzten, gozoki-saltzailea etortzen zenean. Zer gauza ekartzen zituen.

20. Gernika sutan ikusi zuen (MDT-002/002)

Gerra hasi zenean, lau urte zituen. Etxe barruan ezkutatu ziren. Kanpora irten eta Gernika sutan ikusi zuten.

21. "Paragueroak" ekarritako umeak (MDT-002/003)

Laugarren senidea jaio zenean, "paragueroak" ekarri zuela esan zieten anai-arrebei. Gau osoa eman zuten hura zaintzen, inork eraman ez zezan. Ohikoa omen zen hori esatea, umea "paragueroak" ekarri duela.

22. Etxe-bataioak (MDT-002/005)

Jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten neba txikia. Lehenbailehen egiten zen erritua. Etxe-bataioak zer ziren kontatzen du.

23. Lehenengo jaunartzea (MDT-002/006)

Jaunartzea Pazko egunean egiten zuten, zortzi urterekin. Batzuek ospakizuna egiten zuten etxean, besteek, ezer berezirik ez. Jantziak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

24. Ezkontzetako ohiturak (MDT-002/007)

Ezkundu eta beste egunen batean bazkaria egiten zen etxean, familiakoekin. Nora ezkontzen ziren, hantxe egiten zen ospakizuna. Gonbidatuek dirua eta opariak ematen zizkieten.

25. Gaubelak (MDT-002/011)

Norbait hiltzen zenean, auzoko denak hildakoaren etxera hurbiltzen ziren gauez, errezatzeraz. Gaubeila esaten zitzaion. Lepoan hartu eta eramaten zen hildakoa etxetik elizara. Auzoko gizonek eramaten zuten. Diru asko ordaindu zuten amaren gorpua ospitaleetik etxera eramateko.

26. Hileta, lur eman eta gero (MDT-002/012)

Hileta zelakoa izaten zen. Lehenengo hilerrian lur ematen zitzaion gorpuari. Ondoren, meza egiten zen. Lehen ez zen gorpurik eliza barrura sartzen.

27. Kanpaiak (MDT-002/013)

Gizona hilez gero, hiru kanpai jotzen zituzten; andrea hilez gero, bi. Etxeren bat edo basoa sutan bazen, kanpai asko jotzen zituzten.

28. Eskolako kontuak (MDT-002/015)

Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eskolan. Maistra eibartarra zeukaten, erdalduna. Eskola barruan euskaraz eginez gero, zigortu egiten zituen maistrak.

29. "Kubike" jolasa (MDT-002/016)

"Kubike" (ezkutaketan) ibiltzen ziren olgetan. Jolasa azaltzen du.

30. Neskame Bilbora (MDT-002/018)

Hamalau urterekin eskola bukatuta, neskame joan zen Bilbora. Gaztelera ikastearren joan zen, gehien bat. Bilbon gertatutako anekdotak kontatu ditu.

31. `Buzterri´ soinua jotzen (MDT-002/023)

Jai eta erromerietara gutxi joaten ziren. Danbolina eta soinua jotzen zuten dantzarako. `Buzterri´ izaten zen soinu-jolea, auzokoa. Bere senarrak ere jotzen zuen tarteka.

32. San Juan suak eta loreak (MDT-002/027)

San Juan suak beti egiten zituzten, etxe bakoitzean bat. Lore sorta bereziak eramaten zituzten elizara bezperan eta lehortzen lagata, hurrengo urtean sutan erretzen zituzten.

33. Albizeko eta Mendatako tabernak (MDT-002/029)

Taberna bakarra zegoen Albizen, Mendatan hiru. Emakumeak tabernara joaten ziren, bera behintzat bai. Tabernabarrin soinu-jotzailea egoten zen.

34. Gernikara saltzera (MDT-002/031)

Gernikara joaten ziren saltzera astelehenetan, bereziki arrautzak. Orduko erosketetan zer erosten zuten kontatzen du. Sagar asko eramaten zituzten. Sagar-mota batzuk aipatzen ditu.

35. Errekan arropak garbitzen (MDT-002/032)

Albizen errekan garbitzen zituzten arropak, lehenengo etxean xabonatuta. Kakoan eskegitzen zituzten gero. Xaboia erosi egiten zuten. Gehienetan astelehenetan garbitzen zituzten. Lixatu ere egiten zuten.

36. Ura iturritik, karburoarekin argia (MDT-002/033)

Etixerako ura iturritik ekartzen zuten, pitxarrarekin. Abereek errekan edaten zuten ura. Argia lortzeko karburoa erabiltzen zuten.

37. Txarribodak eta auzolana (MDT-002/041)

San Martin egunez ez zuten ezer berezirik jaten. Txarribodaren ostean, auzo guztiari jaten ematen zitzaion. Jan-edanak zehazten ditu. Txerriak auzotarrei banatu egiten zitzaion, zerbait. Etxeko lan handiak egiteko auzotarrek laguntzen zuten.

38. Albizeko errota (MDT-002/043)

Albizen bertan bi errota egon ziren. Artoa eta garia eramaten zuten eta errotariek irina ematen zieten. Irinetan kobratzen zuten errotariek. Gerra garaian, guardia zibilak ibiltzen ziren.

39. Gerraostean jatekoa nondik atera? (MDT-003/003)

Gerraostean garia, artoa eta patata kendu egiten zizkieten, herriarentzat. Ama negarrez egoten zen, ea umeei zer eman behar zien esanez. Okindegian ogi beltza ematen zieten. Nolakoa izaten zen. Amak hura ez jateko esaten zien. Esne asko ematen zuten behiak zituztenez, non-nondik arroza ekarri eta arroz-esnea jaten zuten. Batzuek arbi-loreak batzen zituzten, jateko.

40. Berreñoko auzo-eskola (MDT-003/004)

Berreñoko auzo-eskolan ibili zen. Auzoko gizonak egina zen. Ordu erdi baino gehiagoko bidea zuten eta ogitartekoa hartuta joaten ziren. Gerra sasoiaren luzaroan maistra gabe egon ziren. Amak esaten zuen neskek ez zutela eskolarik behar, baina pena zuen semeek eskola nahikoa ikasi ez izanaz.

41. Umezain eta josten (MDT-003/005)

Gerraostean umezain joan zen Urkitzera. Handik itzultzean, ahizpaordea (aitaren alaba) gaixorik zegoela eta harengana joan zen Etxebarrira, umezain. Luzaro egon zen han. Etxera ez itzultzeko esaten zioten. Goizean etxean lan egin eta arratsaldeetan jostera joaten zen. Etxera itzultzean, 18-20 urterekin, josten hasi zen, baina pixkanaka utzi egin zuen, beste ahizpa ezkondu ostean.

42. Behiak arrastaka eraman eta eskua ebaki (MDT-003/008)

Albaitaria etorri zen ganadua txertatzera eta auzoko gizon bati laguntza eskatu zion, goiko txabolara joateko. Behi batek ez zuen sartu nahi. Damianak soka erantsi zion, baina beldurtu egin zen eta arrastaka eraman zuen. Eskuan ebaki handia egin zuen. Ez zuen basaz beterik Muxikara joan nahi, baina halaxe eraman zuten. Ospitalean odola sartu behar izan zioten. Eskua hainbestean geratu zitzaion.

43. Umetako jolasak; ortutxoak zaintzen (MDT-003/013)

Berreñoko eskolan zebilenean, ortutxoak edukitzen zituzten eta zeinek dotoreago ipini ibiltzen ziren. "Kubike" jolasa, ezkutatu eta topatzen. Ez du gogoan sokasaltoan zer kanta abesten zituzten.

44. Eskolara sartzera koan "Cara al sol" kantatu behar (MDT-003/014)

Eskolara sartzera koan, txapel gorria jantzita "Cara al sol" abestu behar. Berreñoko eskola txikia zen eta neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Maistra ona eduki zuten. Erdalduna zen. Berak ulertu ez arren, ez zituen zigortzen euskaraz berba egiteagatik. Ez zen asko joan eskolara. Anaiak gehiago joan ziren.

45. Berreñoko eskolan sukaldea eta komuna (MDT-003/015)

Eskolan bi arbel eta liburuak zeuzkaten. Maistrak jan ahal izateko, sukaldetxo bat ere bazegoen, eta baita komuna ere. Beraiek eskola baino beheago zegoen Aurtentxe baserrian jaten zuten bazkaria, eta arratsaldean berriz eskolara. Asteburuetan eskolarik ez eta basahuntzen pare ibiltzen ei ziren.

46. Umeak balen bila; moroak ikusteko zain (MDT-003/016)

Gerra sasoiko oroitzapenak. Balak lurrian sartzen zirela ikusita, haiek topatzen ibili ziren anaia eta biak, arriskuaz jabetu barik. Ez zitzairen ezer gertatu. Moroei buruz gauza bitxiak kontatzen zituzten eta haiek ikusteko zain egon ziren, baina ez zuen bakar bat ere ikusi. Jende askok alde egin zuen etxetik, ahal zuena gurdian hartuta. Euren etxetik irteteko eskatu zieten milizianoek, baina denbora gutxirako izan zen.

47. Gernikako bonbardaketan hildako auzokoak (MDT-003/017)

Gernika bonbardatu zuten egunean, ama harantz abiatu zen, arrautza otzara buru gainean hartuta. Bonbak hasi zirenean, erre kara sartu eta etxera itzuli zen. Beheragoko baserrikoak arratsaldean joaten ziren Gernikara. Gizona eta bi seme hil ziren bertan. Alaba bi egunera etxean azaldu zitzairen, noraezean. Etxe horretako kide asko hil ziren gerratean.

48. Golako erre karen inguruan errota eta sagarrondo ugari (MDT-003/019)

Errota asko zeuden euren baserri ondotik pasatzen zen Golako erre karen inguruan. Sagarrondoak ere ugari zeuden, erre karen bi aldeetatik.

49. Etxebarrian ahizpaordearen etxean egon zeneko kontuak (MDT-003/021)

Gerraostean, 14 urte inguru zituela, Etxebarrian egon zen, ahizpaordearen etxean, neskame. Baserri oso handia zen eta jende asko bizi zen bertan. Zerbait ikasi nahi zuela eta josten ikastera joaten zen Damiana etxe batera. Nati zen irakaslea. Astelehenetan neskek kontu asko edukitzen zuten elkarri kontatzeko eta irakasleak ordu erdi lagatzen zien horretarako.

50. Errotariari tranpak egiten laguntzen zioten (MDT-003/023)

Gerraostean errotak itxita egon ziren eta guardia zibilak haiek zaintzen ibiltzen ziren. Euren etxe ondoan zegoen errotara jende asko joaten zen. Errotariari laguntzen zioten tranpak egiten: zigilua jarri eta kendu, guardia zibilak zetozenean abisatu, irin-zakuak edo astoak euren etxean ezkutatu, errotariaren ordeaz aurpegia eman... Ez zuten pentsatzen, harrapatuz gero, beraiek ere errudun izango zirenik.

51. Milizianoek umeentzat erretako ogia eraman (MDT-003/024)

Umetan amari esaten zioten ogia nahi zutela. Aldameneko etxekoekin batera gari anega bat erosi, errotan eho eta gauez ogia egin zuten amak eta aldameneko andreak, umei emateko. Baina ogia erretzeaz bat, milizianoek eraman zuten eta ogi barik geratu ziren.

52. Amak errazionamenduko ogia ez jateko esaten zien (MDT-003/025)

Gerraostean garia eta artoa herrian entregatu behar izaten zituzten. Hainbat elikagai errazionamenduan ematen zituzten gerraostean. Ogia nolako eskasa izaten zen. Amak ez jateko esaten zien.

53. Kafea eta tabakoa etxean erein eta jaso (MDT-003/026)

Gerraostean tabakoarekin eta kafearekin larri ibili ziren. Aitak harrapatzen zuena erretzen zuen: arto-bizarrak, mahats orriak... Bai tabakoa eta bai kafea etxean erein zituzten. Kafe-landarea nolakoa izaten den. Gero txigortu egin behar eta zartaginean ez zen ondo txigortzen. Tabako landarea. Hostoak lehortu egin behar. Gerora, Albizko tabernakoek ekartzen zituzten tabakoa eta beste hainbat gauza.

54. Indabak eta taloak egunero (MDT-003/028)

Garai batean baserriko ohiko jatordua indabak izaten ziren. Taloak ere asko jaten ziren. Berari inoiz ez zaizkio gustatu. Txerri handiak hiltzen ziren. Goizean, taloekin batera, urdaia, zartaginean pasatuta. Denek ontzi batetik jaten zuten. Bizilagun batek horren inguruan kontatutako bizipenak.

55. Aitak abarkak eta kordelak egiten zituen (MDT-003/030)

Aitak larruzko abarka dotoreak egiten zituen. Geroago gorpilen gomarekin egiten ziren. Abarka-kordelak ere etxean egiten zituzten ardi-ilearekin. Ardi gutxi batzuk bazituzten aitaren lagun batekin batera. Aitari ardi zaharra jatea gustatzen zitzaion.

56. Jaunartzea, dotore jantzita (MDT-003/031)

Soineko luzeak erabiltzen zituzten. Prakarik inoiz ez. Tela erosi eta harekin egiten ziren jantziak. Etxean egoten zen josten gutxi gorabehera zekien norbait. Ezagun bati jaunartzerako soinekoa nola egin zioten. Berak dotore jantzita egin zuen jaunartzea. Abadeak ontza bat txokolate eta ogia ematen zien armosutarako eta hura jateko pozik!

57. Mendatarrek egurra, dotrinara joandakoan (MDT-003/032)

Jose Luis Irazola izan zen garai batean Mendatako abadea. Berreñon ez zeukaten dotrinarik eta Mendatara joaten ziren. Hangoek egurra ematen zieten. Dotrina gaztelaniaz izaten zen. Mezak, berriz, latinez. Abadea bizkarra emanda egoten zen aldarean. Sermoiak pulpitutik. Denak joaten ziren mezatara.

58. Elizak emandako txartelak (MDT-003/033)

Jaunartzea egiteko, pazkoetan edo konfesioetarako txartela lortu behar izaten zen. Etxebarrian egon zenean, txartela lortu nahian, gertatu zitzaiena. Zer zen asko pentsatu gabe joaten ziren elizara.

59. Hiletetako ohiturak (MDT-003/034)

Garai batean auzokoren bat hiltzen zenean, egundoko otordua egiten zen. Hiletan gorpua ez zen eliza barrura sartzen. Bezperan auzokoak elkartu eta gaubeila egiten zen. Gorpua andariak eramaten zuten elizara. Auzoko mutilak izaten ziren andariak, normalean. Etxerik etxe hiletaren abisua eman behar izaten zuten.

60. Alkateak isuna, domeka arratsaldean paseatzearren (MDT-003/036)

Garai batean alkate "zoro" bat egon zela Mendatan dio. Dantza lotua debekatu egin zuen. Muniketa auzoan erromeria egiten zen. Damianak ez zuen hara joan nahi izaten, baina behin igande arratsaldeko mezara joan ostean, han geratu zen lagun batzuekin. Jokoan egin eta paseatu egin zuten. Alkateak ikusi egin zituen eta isuna ipini zien. Ez ordaintzea erabaki zuten.

61. Dantzan egitea ordaindu (MDT-003/038)

Mendatako alkatea aldatu zenean, erromeriak egiten hasi ziren. Soinulari onak egoten ziren. Mutilek dantzan egitea ordaindu egin behar izaten zuten leku batzuetan, San Kristobalen, adibidez.

62. Senarra nola ezagutu zuen (MDT-003/039)

Senarra Gernikan ezagutu zuen. Etxebarrira joan zenean, ahaztuta eduki omen zuen, baina handik itzulitakoan, berriz elkartu ziren. Muniketako lagunak bitartez ezagutu zuen. Gernikara plazara edo egun berezietan bakarrik joaten ziren.

63. Gernikako, Zornotzako eta Durangoko azoketara saltzera (MDT-003/040)

Gernikako plazara joaten ziren saltzera astelehenetan. Astoak plaza barrenean lotzen zituzten. Garai hartan eramandako guztia saltzen zen. "Regaterak" ere etortzen ziren Bilbotik. Durangoko azoka izaten zen onena. Larunbatetan izaten zen eta jende gehien bertan ibiltzen zen. Domeketan Zornotzara. Asteazken zehar ere batzuetan joaten ziren azokara.

64. Etxebarriko lagunekin inguruko erromerietara (MDT-003/044)

Emakumezkoak ez ziren tabernara joaten. Etxebarrian egon zenean, lagun zaharragoak zituen. Elgoibarko San Migel auzoko erromeriara eta Eibarko Arratera joaten ziren. Hango erromeriak alaiagoak zirela dio.

65. Hirugarren deiunea bota orduko, aita hil (MDT-003/046)

Aita gaixorik zebilen, baina hobeto zegoela pentsatuta, ezkontzea erabaki zuen. Garai hartan "deixune" (deiunea) bota behar izaten zen elizaz ezkontzeko. Aita gaizki sentitzen hasi zen eta hirugarren deia bota orduko hil zen. Abadeak ezkontza geldiarazi eta gutxienez hiru hilabetez ezin zela ezkondu esan zion. Handik 3-4 hilabetera Urkiolan ezkondu ziren. Lehenengo gaua Gasteizen pasa zuten.

66. Ezkondu zenean, arreoan bi gurdikada (MDT-003/047)

Ezkondu zenean arreoan eraman zuen Ibarrurira (Muxikara): bi gurdikada handi. Goiko bidea ez zegoen eta sororik soro joan behar. Logela bat, arropak eta etxerako gauzak eraman zituen.

67. Ferratzailea Aulestitik Mendatara eguenetan (MDT-003/048)

Uztargileak ibiltzen ziren baserririk baserri uztarriak egiten. Ganaduarentzat ferrak egiten zituztenak ere baziren. Mendatara Aulestitik joaten zen ferratzailea eguenetan.

68. Abade eta fraideen aurrean belaunikatu eta muin eman (MDT-003/049)

Gernikako on Pako medikua joaten zen Mendatara. Hilean hainbeste kobratzen zuen. Berorika hitz egiten zioten. Abaderen batekin edo fraideren batekin topo eginez gero, aurrean belaunikatu eta kordeletan muin eman behar izaten zieten. Fraideak artoa edo garia batzen. Inguruetan ez du ezagutu soroak bedeinkatzea, baina Markinan bai. Soroan gurutzeak nola ipintzen ziren.

69. Aldaola baserria (MDT-004/002)

Aldaola baserria non zegoen azaltzen du.

70. Gurasoen baserritik errenta-etxera (MDT-004/003)

Aita Errekaldekoa zen eta ama Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrikoa. Hara, Irazabalera, ezkondu ziren gurasoak, baina aita ez zen ondo konpontzen aitaginarrebarekin. Handik aldatu egin ziren errenta-etxera.

71. Aita zazpi ume txikirekin (MDT-004/004)

Lau urte egiteko zituela, ama hil zitzaien. Aita zazpi ume txikirekin eta pobre geratu zen. Gainera, burua nahasten zitzaion aitari. Hiru umerekin Errekaldera itzultzea erabaki zuen, arreba neskazaharrenezana. Beste iloba umezurtz bat ere bazuen etxean izekok. Gosez izaten zituen umeak.

72. Eskolara barik, basoa garbitzera (MDT-004/005)

Eskolara barik, aitzurra eman, eta basora bidaltzen zituen umeak izekok, basoa garbitzera. Basoa sasiz beteta zegoen. Egun osoa ematen zuten basoan

eta ebakitako otea etxera eraman behar zuten sutarako. Urteetan, basoa garbitzera. Hamaika urterekin alde egin zuen morroi. Anbre baserrira joan zen.

73. Frontea Albiztik Lemoatxera (MDT-004/006)

Mendiganen bizkaitarrak eta Albizen karlistak egon ziren frontean, gerran. Albiztik Mendatara mugitu zen. Hegazkinak bonbardatzen ikusten zituzten. Tankeek eta abiazioak apurtu zuen inguru horretako frontea, eta Lemoatxera mugitu zen. Handik Bilbora.

74. Alde egin zuen hamaika urterekin, morroi (MDT-004/008)

Anbre baserrira alde egin zuen, eta han eman zituen urte batzuk morroi. Handik "Ajujera" (Ajuriara), arrebarengana.

75. Umetan morroi, basoko lanetan (MDT-004/010)

Ajuria auzoan egon zen morroi. Bi urte egin zituen eta alde egiteko esan zioten. Berriz itzuli zen Errekaldera. Basoko lana egiten zuen.

76. Katuak ilobak maino maiteago (MDT-004/012)

Diru apur bat eman zion baserriko ugazabak eta Errekaldera itzuli zen eta han egon zen soldadutzara joan arte. Hamabost urterekin, izapideak egin zituen itsasora joateko nabigatzera. Mundu Gerra zen, baina berak handik irten beharra zuen. Gose garaia zen, lana zuenean ere, ez zuen ostatua ordaintzeko adina irabazten. Izeko neskazaharrak maiteago zituen txakurra eta katuak ilobak baino. Beste bi neba-arreba ere morroi edo neskame joan ziren.

77. Nabigatzeko gomendiozko agiria behar (MDT-004/013)

Hemezortzi urterekin deitu zioten Marinar soldadutza egiteko. Itzuli zenean, nabigatzera joan nahi zuen, baina, ez zuenez gomendiozko agiririk, ez zuen lortzen lanik. Obretan hasi zen lanean, baina ez zitzaion heltzen gosea kentzeko. Estraperloko janaria oso garestia zen: norberak erositakoa ere ostu egiten zuten.

78. Brasilera joan zen (MDT-004/014)

Euskal Herrian ez zuen dirurik irabazteko modurik eta atzerrira joatea pentsatu zuen. Oso zaila zen mugak zeharkatzea. Gazteren batzuk joaten ziren polizoi. Belarra ebakiz dirua aurreztu zuen, eta paperak ondo eginda, Brasilera joan zen.

79. Brasilen ikasi zuen idazten eta irakurtzen (MDT-004/015)

Brasilen ikasi zuen idazten eta irakurtzen. Mekaniko laguntzaile hasi eta mekanika ere ikasi zuen. Lanean aurrera egin zuen, baina osasunak egiten zion huts. Euskal Herrira itzuli zen, bueltatzekotan, baina ez zen itzuli. Urritxen, Etxanon, bizi izan dira harrezkero, azken bost urteetan izan ezik.

80. Durango aldean mekanika lantegietan (MDT-004/016)

Brasiletik etorrita, Durangon hasi zen lanean Estancona tailer mekanikoan. Hilabete batzuk egin eta Duñaiturria y Estancona lantegira aldatu zen. Bost urte eginda, Zornotzako Izar-era joan zen

81. Ameriketara artzain (MDT-004/017)

Ameriketako Estatu Batuetara joan zen artzain. Idahora joan zen; bost hilabete egin zituen ugazaba euskaldun batekin, baina oso gogorra egiten zitzaion hango bizimodua; artzainen elkartaren bitartez aldatu zen Coloradora, baina han ere ez zen egokitu ondo.

82. Buruko minak (MDT-004/018)

Etxera itzuli zen Ameriketatik, eta hogeitaz urtean egin zuen lan, jubilatu arte. Euskal Herrian ere buruko minak izaten zituen. Alabak enplastuak jartzen zizkion. Sinusitisak eragiten zizkion buruko minak. Ebakuntza egin ziotenean hobetu zen.

83. Artzain, gizarte segurantzarik gabe (MDT-004/020)

Estatu Batuetara joan zen, emaztea eta umeak utzita. Emazteari bidaltzen zion dirua. Artzain zegoela, ez zuten gizarte segurantzarik. Etxera itzuli zen, zazpi hilabete eginda Ameriketan.

84. Umeak baserrietara morroi (MDT-004/021)

Euskal Herrian ia ez zuen idazten ikasi. Inoiz eskolara joan gabe hazi zen. Umeak esplotatu egiten ziren. Meatzarien semeak eta, joaten ziren baserrietara morroi. Morroi zegoela, bazuen zer jan; familiaren etxean ez.

85. Domeketan txirrindolan (MDT-004/022)

Domeketan elkartzen ziren beste ume batzuekin jolaserako. Burdinak eta alanbreak bilatu eta txirrindolak egiten zituzten. Astegunean basora ahuntzekin eta aitzurrekin

86. Tailerreko soldata ez zen bizitzeko nahikoa (MDT-004/024)

Estancona tailerrean lanean ari zela, apopilo bizi zen. Orain baino errazagoa zen lana aurkitzea. Domekak ziren egun libre bakarra, baina sarritan domeketan ere belarra ebaki behar zen dirua ateratzeko. Lan asko egin behar zen apur bat irabazteko

87. Soldadutzatik etorrita, hainbat lan (MDT-004/025)

Leku askotan ibili zenez lanean, toki askotan zituen lagunak. Elorrioren ere egin zuen lan, albatariaren etxean. Garitaonandia negutegietan ere egin zuen lan. Garai hartan hasi zen negutegien arrakasta eta lan asko zegoen.

88. Bilbon ezagututako bi neska arratiarrekin harremana (MDT-005/003)

Bilbora zinemara joan zen batean Arratiako bi neskarekin elkartu zen. Lemoan geltoki ondoko tabernan zeuden neskame. Lagun egin ziren eta hurrengoan ere elkartzekotan geratu ziren. Bi nesketako bat gustatu zitzaion, baina mutil-laguna zeukan. Hori jakin zuenean, bakean utzi zuen. Beste lagunak, ordea, interesa zuen berarengan. Anastasiok ez zion esperantza faltsurik eman nahi izan.

89. Arrebaren etxean morroi zegoela, aita hil zieten (MDT-005/006)

Ajurian (Ibarrurin) egon zen, arrebaren etxean, morroi. Beste edozein etxetan balego lege zuten egiten zuen: euria zenean busti-busti eginda, basoko lanetan, uda partean baserriko beharretan... Han zegoela, anaia gazteagoa etorri zitzaion auzoko batek aita hil zuela esatera.

90. Auzoko batek aita hil zuen lur-sail batzuen gorabeheran (MDT-005/007)

Ikeria errotako gizona, goiko bidera irteteko, beste batzuen lur-sailetatik pasa behar izaten zen eta nahi zuen lekutik pasatzen omen zen. Anastasioren aitak, izebaren lur-sailak defendatzearen, Ikeriako gizonari aurre egin zion behin eta hark hil egin zuen, eskopetarekin tiro bat emanda. Anastasiok 15 urte zituen. Auzokoak zatituta geratu ziren, batzuek beraien alde egiten zuten eta beste batzuek ez.

91. Errekalde baserriko basoetara lanera (MDT-005/025)

Bizimodu gogorra izan zuten Errekalde baserrian. Bi ahuntz hartu eta beti basora, beharrera. Otea ekartzen zuten etxera, sugarri moduan. Umeek baso gehientsuenak garbitu zituzten, jardunean-jardunean.

92. `Piston´soinu-jotzailea Mendatako jaietan (MDT-005/030)

Mendatan San Migelak ospatzen ziren eta Albiz auzoan Madalenak. Txistua eta danbolina. Borrokak ere izaten ziren sarri. Asto edo idi-probak. Ardo asko edaten zen. Etxebarriko `Piston´ soinu-jotzailea joaten zen batzuetan. Tabernabarrikoen senidea zen. Dantzan egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten.

93. Emakumeek ordaindu ez, baina eskubiderik ere ez (MDT-005/033)

Erromerietan mutilek ordaindu egin behar izaten zuten, dantza egiteagatik. Txartel bat jartzen zieten jada ordaindu zutenei. Neskek ez zuten ordaintzen. Tabernan ere mutilek ordaintzen zuten. Andreak ez ziren bakarrik sartzen tabernara eta ez zuten erretzen. Txarto ikusita zegoen, batez ere herrietan. Praka janzteia ere bai.

94. Ganaduaren larruarekin etxean egindako oinetakoak (MDT-005/035)

Gaztetan abarketak erabiltzen zituzten. Merkeak izaten ziren. Neguan gomazko abarkak, beharrerako. Larruzkoak garestiagoak izaten ziren. Zapatak ondutako larruarekin eginak. Azpian iltzeak izaten zituzten, tatxetak, ez labaintzeko. Etxean ganaduaren larrua baldin bazegoen, abarka antzekoak egiten ziren, ondu gabeko larru harekin.

95. Umetan arropa zahar eta zikinekin (MDT-005/036)

Umetan arropa zaharrekin eta ahal zen moduan ibiltzen ziren. Errekalde baserrian egon zirenean, egundo arroparik garbitu ere ez. Noizean behin Gernikan neskame zegoen arreba joaten bazen, hark garbitzen zizkien arropak. Izebak sekula ez.

96. Arrebaren neskametz (MDT-005/038)

Jesusa, arreba, Zornotzan egon zen neskame taberna batean, 11 urterekin, gerra aurretik. Hangoek etxerako moduan hartu nahi izan zuten, baina gerra hasi zenean, denak ihesean joan ziren eta hantxe bukatu zen bere neskametz. Gerra sasoian Bilbon egon zen neskame. Handik Ajuria auzora (Muxika) ezkondu zen 21 urterekin. Beste lanetan ez, baina Gorritxu tabernan gizarte segurantzaren ere ordaintzen zioten.

97. Eskolara Ajangizera (MDT-010/004)

Eskolara Ajangizera joaten ziren. Ez zieten euskaraz egiten lagatzen. Ahal zen moduan janzten ziren.

98. Neskame Bilbora (MDT-010/006)

Hamabost urterekin neskame joan zen Bilbora, Zornotzako beste neska batekin. Hango bizimoduaren berri ematen du.

99. Mendatako tabernak (MDT-010/008)

Tabernetan ez zen ibiltzen; gizonak bakarrik. Hiru taberna zeuden lehen Mendatan.

100. "Txirriboletan", "tronpaketan", intxaurrekin olgetan (MDT-010/010)

"Txirriboletan", "tronpaketan", intxaurrak botatzen... ibiltzen zen olgetan.

101. Arropak eta behi-mantak garbitzera errekar (MDT-010/012)

Behi-mantak errekan garbitzen zituzten. Lixiba zelan egiten zuten kontatzen du. Sutako-hautsa kentzen zaila izaten zen.

102. Gurutzeak soroetan eta ateetan (MDT-010/015)

Soroetan eta ateetan gurutzeak ipintzen zituzten, elizan bedeinkatuta, Aste Santuan, ereinotza eta erramuarekin.

103. Fraideak eskean eta udaletxearen uztaren zatia (MDT-010/016)

Arantzazuko fraideak eskean ibiltzen ziren. Udaletxeak ere kentzen zien uztatik, eta norberak eraman behar izaten zuen.

104. Txerrikia gatzun-askan (MDT-010/018)

Txerria artoarekin hazten zuten. Bere senarrak hiltzen zuen, eta gero erre egiten zuten. Txorizoak zelan egiten diren azaltzen du. Txerrikia gatzun-askan gordetzen zuten.

105. Odolosteak zelan egiten diren (MDT-010/019)

Odoloste onak egiten zituen. Prozedura azaltzen du. Eskegita lagatzen zituzten pare bat egunez. Apaizari eta medikuari inoiz ez zien eman.

106. Txorizoak zelan egiten diren (MDT-010/020)

Txorizoak zelan egiten diren azaltzen du.

107. Behiaren esnearekin gazta (MDT-010/021)

Behiaren esnearekin gazta egindakoa da; baita gatzatua ere. Gazta zelan egiten zuen kontatzen du. Freskoa jaten zuten.

108. Abereak ferratzera Marmizera (MDT-010/023)

Behiak ferratzera Marmiz auzora joaten ziren. Behiei eta astoari ipintzen zizkioten.

109. Karea sororako eta oilategirako (MDT-010/025)

Karea Forutik ekartzen zuten. Soroan botatzen zuten, zomorroak edo kokoak hiltzeko. Oilategian ere botatzen zuten, azpikoak atera eta gero.

110. San Juanak Ajurian eta etxean (MDT-010/031)

San Migelak ospatzen zituzten eta igandero erromeria. San Juanetan Ajuriara joaten ziren. Etxean sua egin eta kantatu egiten zuten.

111. San Juan bezperako kanta (MDT-010/032)

San Juan bezperako kanta: "San Juan, San Juan, bezpera gabie; abadiak hasarratu zirien; ez eben besterik egiten; alkarri musturrak hausiten; sorgiñek erre, lapurrek erre, artoak eta garixek kaxan ondo gorde".

112. Gabon gaueko ogia (MDT-010/033)

Gabonetako ogia gorde egiten zuten eta hurrengo urtean txakurrei ematen zieten, ardotan bustita. Ez da lizuntzen. Ur bedeinkatua ez da izorratzen, gatza botatzen dietelako.

113. Sagarra eta berakatza garatxoak sendatzeko (MDT-010/035)

Belarrak erabiltzen zituzten gaixotasunentzat. Sagarrak eta berakatzak bedeinkatu eta garatxoentzat erabiltzen zituzten.

114. Gernikako bonbardaketa eta soldaduak etxean (MDT-010/039)

Gernika erreta ikusi zuen. Hegazkinak pasatzen ziren. Soldadu bik egin zuten lo etxean. Zaldiekin joaten ziren ur edo jateko eske. Aita Bidebietara joan zen, behi eta guzti.

115. Ogia zelan egiten den (MDT-010/040)

Gerra ostean, goserik ez zuten izan. Ogia etxean egiten zuten. Zelan egiten zuten azaltzen du.

116. Eskolara bide luzea (MDT-011/002)

Berreño auzotik eskolara hiru kilometroko bidea zeukaten. Goiz eta arratsalde joaten ziren. Sei urterekin hasi eta hamabirekin laga zuen. Abarkak eta galtzerdiak janzen zituzten, eta udaran abarketak. Eskola deskribatzen du.

117. Juanita maistrarekin euskaraz (MDT-011/003)

Bere maistrak, Juanita Munitibarkoak, euskaraz egiten zuen. Neskak eta mutilak elkarrekin egoten ziren. Liburuak erabiltzen zituzten. Arkatza, luma eta tinta erabiltzen zuten.

118. Gerra ostean, maistra eta abadeak aldatuta (MDT-011/005)

Gerra ostean, dena erdaraz egiten hasi ziren eskolan. Aldaketa bat-batekoa izan zen. Maistra eta abadeak aldatu egin zituzten.

119. Munitibarko hauteskundeak eta abertzaleak (MDT-011/006)

Munitibarren hauteskundeak egin zirenekoa gogoan du; EAJk irabazi zituen. Batzokia Errotan egin zuten. Ilea moztu zieten Batzokian batzen ziren neskei.

120. Gerra garaian, taberna kendu eta alkatea kartzelara (MDT-011/007)

Mendatan, Eskolenekoei taberna kendu egin zieten gerra garaian. Batzokia taberna hartan zegoela entzun izan du. Alkatea kartzelatu egin zuten. Munitibarko alkateak ihes egin zuen.

121. Bonbardaketa Munitibarren (MDT-011/010)

Bonbardaketa etxeko leihotik ikusten zuen. Bost soldadu izan zituzten etxean. Oizetik etorri, Munitibarren bota eta gero Gernikara joaten ziren. Hiru herritar hil ziren Munitibarren bonbengatik eta lau soldadu ere bai. Komunista bati buruzkoak kontatzen ditu.

122. Hiru hildako Mendatan, gerragatik (MDT-011/012)

Gernikako bonbardaketagatik eta gerragatik hildako hirua aipatzen ditu, Mendatakoak. Bere senarrak zulo batean ezkutatuta eman zuen bonbardaketako eguna. Gernika erreta zegoela, bertan izan zenekoa kontatzen du.

123. Bolibarren fusilatu bat (MDT-011/013)

Bolibarko bat fusilatu egin zuten, senideei kartzelatik libre laga zutela esan bazieten ere.

124. "Radio Paris" entzuten zuten (MDT-011/014)

"Radio Paris" entzuten zuten eta gerraren berri izaten zuten.

125. Errotak itxi eta garia kendu (MDT-011/015)

Bonbardaketaren ostean, errotak itxi egin zituzten, baina batzuek jarraitzen zuten zelan edo halan. Arratzuko okindegira joaten ziren ogi bila. Garia hartutakoan, gurdikada kentzen zieten; urte askoan.

126. Indabak salduz gero, isuna (MDT-011/016)

Baserritarrentzat ez zen errazionamendurik egon. Indabak salduz gero, kendu eta isuna ipintzen zieten. Txerria hiltzea libre zen.

127. Txerrikia gatzetan (MDT-011/017)

Kaxetan gordetzen zuten txerrikia, gatzetan. Gero beratu egiten zuten. Gatza nahi beste egoten zen tabernetako dendetan salgai.

128. Mendatan zortzi errota (MDT-011/018)

Mendatan zortzi errota zeudela dio. Itxita egon ziren baina ezkutuan jartzen zituzten martxan. Batzuk izendatzen ditu: Ikerixe, Gola, Gogortza, Errotabarri, Errotazuri, Bizkoerrota.

129. Taloa eta ogia zelan egiten zituzten (MDT-011/019)

Taloak zelan erretzen zituzten kontatzen du. Ore zati bat gorde egiten zuten aldi batetik bestera. Zahia eta irina bereizi egiten zituzten galbahearekin. Zahia abereentzat eta irina ogia egiteko izaten ziren. Ordubete edukitzen zuen ogia labean. Astebeterako ogia egiten zuten.

130. Artoa abereentzat eta etxekoentzat (MDT-011/020)

Morokil askorik ez zuten jan etxean; ahia (gariarekin egindakoa), ordea, asko. Artoa egiten zuten labean. Artoa osorik ematen zitzaaien abereei eta norberarentzat, alea lehortu eta errotara eramaten zen.

131. Artilezko koltxoiak eta kapatzarekin egindakoak (MDT-011/021)

Artilezko koltxoiak izaten zituzten. Hasieran lan handia izaten zen, artilea ondo garbitzen. Kapatzarekin egindakoak ikusi ditu, baina probatu ez. Artoaren txokorra sutarako erabiltzen zuten.

132. Okilak eta zozoak jateko (MDT-011/022)

Garia ondo etortzen zen inguru haietan. Okilak eta zozoak jan egiten zituzten. Okila erabat desagertu zela dio.

133. Gariaren lanak (MDT-011/023)

Gariaren lanak taldean egiten ziren. Garia jotzeko makina bat nazionalistena eta beste bat besteena zituzten. Garia kaxetan gordetzen zuten, jo eta gero. Astero errotarako joaten ziren. Garia ebakitakoan, sortak egiten zituzten eta lehortzen laga. Lana egin eta jan egiten zuten. Zerrarekin moztzen zuten.

134. Sororako tresnak eta ongarria (MDT-011/025)

Kare asko botatzen zioten lurrari. Forutik ekartzen zuten. Simaurra etxean egiten zuten. Zein tresna erabiltzen zituzten esaten du: sardea, goldea, alperra, aitzurra, bailarinak... Itaurrean ibili behar izaten zuen.

135. Lanparoia, behien gaixotasuna (MDT-011/027)

Behiak eta txahalak zituzten etxean. Basoan erabiltzen zituzten. Txahalak hazteko izaten zituzten. Lanparoia izaten zen behien gaixotasuna. Lurperatu egiten zuten gaixotutako aberea. Kaparrak izaten zituzten eta kendu egiten zizkieten.

136. Behiak non eta zelan ferratu (MDT-011/028)

Abereak non eta zelan ferratzen zituzten azaltzen du. Garoa eta otea jartzen zizkieten azpigarritarako.

137. Behiari ardoa (MDT-011/029)

Behiari ardoa ematen zioten txahala jaiotzerako. Txahala jaiotakoan, behia lotu eta ondoan lagatzen zioten. Behia susara zegoela, nabaritu egiten zioten.

138. Pentsua eta baba behiari (MDT-011/031)

Txahala eduki zuen behiari pentsua eta baba ematen zitzaizkion, ganbela batean. Txahala lotu egiten zuten jaiotakoan.

139. Eskolara Ajangizera, goiz eta arratsalde (MDT-012/003)

Inguruko etxeetan adintsuko ume asko zeuden eta asko jolasten zuten. Eskolara Ajangizera joaten ziren, goizez eta arratsalde, bazkaltzera etxera etorrita. Etxeko zereginekin, ez zuten olgetarako tarte handirik.

140. Etxean lan asko egin behar umetan (MDT-012/004)

Astoa otzarekin hartu eta uretara joaten ziren, etxeraino ez zeukatelako. Soroan ere lan egin behar izaten zuen. Hamabi urterekin eskola laga egin behar izan zuen, aita-amei laguntzeko. Bere ahizpa neskame joan zen.

141. Iratara Gaztiburura (MDT-012/005)

Ira (garoa) moztu eta ekartzera Gaztiburura joaten ziren. Eguna han ematen zuten. Sua egin eta bertan egiten zuten bazkaria. Azaoarekin argitzen zuten bidea. Behiekin eta gurdiekin ekartzen zuten.

142. Umetatik lan-tresnak erabiltzen (MDT-012/006)

Baserriko tresnekin ume-umetatik ibiltzen ziren. Abereen azpiak ateratzen aritzen zen. Baserrian lan egin du beti, txikitatik. Baserritik bizi izan ziren gurasoak.

143. Herriz Mendata, elizaz Arratzu (MDT-012/007)

Herriz Mendatakoak dira, baina elizaz Arratzukoak. Mezatara domeketan Ajangizera joaten ziren, baina dotrinara Arratzura joaten zen.

144. Umetako jolasak eta ibilerak (MDT-012/008)

Oinetako batzuk janzten zituzten biderako eta elizarako beste batzuk eramaten zituzten. Etxe inguruan jolasten zuten, tortolosekin, soka-dantzan...

145. Ajangizko eskolako maistrak (MDT-012/009)

Ajangizen Maria Teresa izan zen bere maistra. Haren ordeztuak beste bat ipini zioten, María Visitación de Toña y Pagazaortundua. Oinarritzko eragiketak egiten ikasi zuten. Neska-mutilak banatuta egoten ziren.

146. Lurra lantzeko lan-tresnak; goldeak, gurdia, area (MDT-012/010)

Goldeak bi egoten ziren: bata, nagusia, eta bestea, txikia. Gurdiari nardaka ipintzen zioten eta katea lotu hari. "Bailarinak" lurra astintzeko izaten ziren. Arearekin, goldatu baino lehen, gaineko belarra izkinetan batzen zuten eta erre.

147. Estoa, lurra gozatzeko lan-tresna (MDT-012/011)

Estoa zer zen eta zelan egiten zuten kontatzen du. Lurra gozatzeko erabiltzen zuten, area eta goldea pasatu ostean.

148. Alper-harria, mazo borobila, trakulua (MDT-012/012)

Sokila apurtzeko alper-harria erabiltzen zen eta ondoren eztoa pasatzen zen. Tresna horiekin lurra gozatzen ez bazen, egurrezko mazo borobilarekin jotzen ziren. Soroan lan handia egiten zuten. Gosaltzeko taloa eta esnea edo ogia jaten zuten. Belarra trakuluetan (gurdi txikia) ekartzen zuten. Makinak etorri zirenean, dena hondatu zela dio.

149. Lan asko baina denerako denbora (MDT-012/013)

Lau behi izan zituzten, uztarri bi. Egurrezko gurpilak izaten zituzten. Denerako denbora zegoela lehen dio, baita auzokoekin berba egiteko ere.

150. Ilunpean mendira (MDT-012/014)

Udan ilunetan jaikitzen ziren. Azaoa piztuta eramaten zuten. Azaoak gurdian eramaten zituzten, baita norberarentzat eta abereentzat jateko pixka bat ere. Lehenengo behiei kasu egiten zieten eta, ondoren, beraiek jaten zuten.

151. Ura etxeraino ekarri zutenekoa (MDT-012/016)

Tipula sartzeko ilargiari kasu egiten zioten. Ura etxera zelan ekarri zuten kontatzen du. Ortuan denetarik izaten zuten eta Bermeora joaten zen saltzera.

152. Bermeora plazara (MDT-012/017)

Bermeora joaten zen etxeko barazkiekin. Plaza berria egin zutenean, postua hartu zuen. Hogeita lau postutik sei geratu ziren. Beste batzuen barazkiak saltzen ditu, nahikorik ez daukanean.

153. Txerri-hiltzen aitarekin batera (MDT-012/018)

Txerria hiltzeko ilargiari kasu egiten zitzaion, baina gero ez. Aita txerriak hiltzen ibiltzen zen etxerik etxe eta Pilar hari laguntzen. Zelan egiten zuten kontatzen du.

154. Albizko eskola, Bizkaiko lehena (MDT-014/002)

Albiz auzoan bertan lehen udaletxea egon zela entzuna du, baita Albizko eskola Bizkaiko lehenengoa izan zela ere. Aititak eta beste batzuek eraiki zutela dio.

155. Bilboko maistraren zigorrak (MDT-014/004)

Bandera atera eta "Cara al sol" abestu behar izaten zuten. Bilbotik etortzen zen maistra. Euskaraz egitearren zigortu egiten zituen. Makila batekin edo egurrezko metroarekin jotzen zituen. Errespetua baino beldurra izaten zutela dio.

156. Pilotan egitera Mendatara (MDT-014/005)

Aitaren bizikleta hartuta, lagunekin joaten zen Mendatara, eskola partikularretara. Pilotan egiten zuten hango frontoian.

157. Eliz-mutil zazpi urtez (MDT-014/006)

Igorreko Txomin apaizarekin Oizera joaten zen eliz-mutil. Zazpi urtez ibili zen apaizaren laguntzaile. Eskolatik irten eta dotrinara joan beharra izaten zuten. Don Juan, Don Jose eta beste apaiz bat aipatzen ditu. Jendearentzat elizako kontuak eskola baino garrantzitsuagoak zirela dio.

158. Albizko abadea eta neskamea (MDT-014/007)

Albiz auzoko abadeak abade-etxea zeukan, neskame eta guzti. Pasarte barregarria kontatzen du.

159. Baserrietara ura ekartzeko lanetan (MDT-014/008)

Senideen artean mutil bakarra zen eta bera egoten zen aita-amekin. Arrebak neskame joan ziren. Ura eta argindarra berandu izan zituzten. Ura ekartzeko egin zituzten lanak kontatzen ditu. Dena eskuz egiten zuten. Soldata zenbatekoa zen azaltzen du.

160. Ameriketara gazte asko joan zen (MDT-014/009)

Australiara edo Ameriketara jende asko joan zen Mendatetik eta inguruko herrietatik. Batzuk bueltatu ziren eta beste batzuk ez. Han egonda, hemen nahi izaten dela dio, eta hemen egonda, han.

161. Ameriketara bidaia, trenez eta hegazkinez (MDT-014/010)

Soldadutza egin ostean, Ameriketara joan zen. Paperak egin, Bilbon trena hartu eta Madrilera joan zen, beste hamabost lagunekin. Hegazkinez joan ziren.

162. Artzain Ameriketan, Pete Zenarruzarekin (MDT-014/011)

Ugazaba Pete Zenarruza izan zuen. Hamazazpi lagun ziren lanean, denak Mendata ingurukoak. Etxean moduan egon zirela dio. Hamabi mila ardi zeuzkaten. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du.

163. Neguan lan handia bildotsekin (MDT-014/012)

AEBn artzain egon zeneko kontuak. Neguan lan handia izaten zuten. Bildotsa zen saltzen zuten bakarra. Zenarruzatarrekin etxeko egon zirela dio. Bakarrik zein taldean egiten zuten lan.

164. Ameriketako desertu itzeletan (MDT-014/015)

Euskal Jaiak egiten zirenean, milaka euskaldun batzen ziren AEBn. Herri kirolak egiten ziren. Desertuak itzelak izaten zirela dio, behe-lainoarekin galtzeko modukoak. Zaldiari eta txakurrari esker egiten zutela aurrera esaten du.

165. Ardiekin Estatu Batuetako indigenen erreserban (MDT-014/016)

Washingtonen (Estatu Batuetan) indigenen erreserban izaten zituzten ardiak hilabete batzuetan.

166. Ameriketako artzainen arropa eta "karro-kotxea" (MDT-014/017)

Praka bakeroak janzen zituzten. Oinetakoak oso onak izaten zirela dio. Idahon hotz handia egiten zuela dio eta Kalifornian, oster, epel. "Karro-kotxea" zelakoa zen kontatzen du.

167. Bildotsak zenbatu eta pisatu (MDT-014/018)

Kalifornian uzta handia izaten zen. Otsailaren bukaeran jakiten zuten zenbat bildots lortu zituzten. Mexikarrak arduratzen ziren ardiei ilea mozten. Bildotsak kanpora saltzen zituzten. Lehenengo pisatu egiten zituzten, denak batera, kamioia bera pisatuta.

168. Ameriketan artzain, diru asko denbora gutxian (MDT-014/019)

Ameriketan artzain egonda, soldata hirurehun dolarrekoa izan zuten hasieran. Diru asko egiten zuten denbora gutxian. Bost urte egin zituen han.

169. Hartzak, pumak eta koioteak, Ameriketako artzainen etsai (MDT-014/020)

Hartzak eta pumak ("cougar" ingelesez) ziren piztiarik txarrenak. Hartzak hildako ardia edo bildotsa jan egiten du. Koioteak hil bai baina jan ez ditu egiten. Gatz asko behar izaten dute ardiek han.

170. Pumak arriskutsuak ziren Ameriketan (MDT-014/021)

Pumak ("cougar" ingelesez) zuhaitzetan gora joanda ibiltzen ziren. Tiroa jo eta zaurituz gero, artzainari egiten zieten eraso.

171. Kriskitin-sugea Ameriketan (MDT-014/022)

Saien antzeko hegaztiak ez zieten erasotzen bildotsei. Kriskitin-sugeak beldurra ematen zion; zaldiak hots hori entzuten bazuen, geratu egiten zen.

172. Artzainaren laneko askatasuna (MDT-014/024)

1964an izena eman zuen Eibarko Alfa lantegian sartzeko, baina ez zuten hartu. Ameriketatik etorri zenean deitu zioten. Artzain ibili zenean, berak antolatzen zuen lana, ugazaba hilabete askoan ez zuelako ikusten.

173. Mendiko artzainen lana Ameriketan (MDT-014/026)

Ameriketan lankide izan zituen guztiak hilda daudela dio. Mendian lan egiteko, egoten jakitea garrantzitsua dela esaten du. Lana zelakoa den azaltzen du.

174. Ameriketako ardiak eta hango gaixotasunak (MDT-014/027)

Ameriketako ardi klaseak deskribatzen ditu. Ardiari jatekoa aldatzerakoan, zelaiz aldatzerakoan, kontu handia izan behar izaten zutela dio, bestela puztu eta hil egiten zirelako.

175. Bildotsek bizirauteko moduak (MDT-014/028)

Artaldean izaten zituzten arazoak kontatzen ditu. Bildotsak ardiz zelan aldatzen zituzten azaltzen du.

176. Tabernan eta erromerian neskekin Ameriketari (MDT-014/029)

Tabernara joaten ziren, arrantxoan zeudenean. Neskekin hantxe batzen ziren eta neska-laguna ere izan zuten. Oñatin Ameriketari ibilitakoak batzen ziren eta neska-laguna bisitan joan zitzaion lantegira.

177. Eskola gutxi (MDT-017/002)

Bederatzi urte zituela, aita kartzelara eraman zuten eta ez zuten eskolara joaterik izan. Ama bost umerekin geratu zen. Mallabiko maisuarekin ikasi zuten, Elizaldean.

178. Australiara lanera (MDT-017/003)

Ezkonduta eta hiru urtera, Australiara joan zen diru bila. Koinatuak zituen han; anaiak eraman zituen berarekin, eraikuntzako lanetan aritzera.

179. Zentral termikoa eraikitze lanetan, Australian (MDT-017/004)

Zentral termikoa eraikitze lanetan aritu zen Australian.

180. Itsasontziz Australiara (MDT-017/006)

Australiara itsasontziz joan zen, Italiatik abiatuta. Hogeita sei egun behar izan zituzten. Itzulera ere itsasontziz egin zuten.

181. Ordu asko lanean, Australian (MDT-017/007)

Australian "kainaberetan" lan egitera asko joaten ziren. Eraikuntzan ondo irabazten zuten; ordu asko egiten zituzten lanean.

182. Australiatik gutunez (MDT-017/009)

Etxekoekin gutun bidez komunikatzen zen Australiatik. Elizaldera deitu zuten behin telefonoz.

183. Euskaraz egitearren zigorra eskolan (MDT-017/015)

Gerra osteko eskolan, euskaraz egiten zuenari, fitxa bat ematen zioten eta hura eskuz esku pasatzen zuten. Zigorra jolas-ordu gabe geratzea izaten zen. Dotrina izaten zuten jolasaren orde.

184. Auzokoen laguntza handia (MDT-017/016)

Garia ebakitzeko eta artajorarako auzoak laguntzera etortzen ziren, baita aita kartzelan egon zenean ere. Batak besteari laguntzen zion.

185. Arangoiti uztargilea (MDT-017/020)

Uztargilea Arangoiti Albizkoa izaten zen. Pagoarekin egiten zituen eta etxeetara joaten zen. Dena eskuz egiten zuten.

186. Gerra garaian aita kartzelan (MDT-017/027)

Gerra hasi zenean, Mungiara joan ziren familia guztia, behiak hartuta. Aitak ez zuten herrira itzultzerik nahi izan eta Iruñean harrapatu zuten. Handik pixka batera, epaiketa egin zioten eta sei urterako kartzela-zigorra ezarri zioten.

187. Txahalak errekisatuta (MDT-017/028)

Bilboko Larrinagan preso eduki zuten aita eta amak astero bisita egiten zion. Zorrak egin zituzten, txahalak errekisatu egiten zizkietelako, aita kartzelan zegoen bitartean. Aita-amen bizimodua gogorra izan zela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com